


2008-2010
334-366

BIZKAÏTARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

334n. zenbakia

2008 urtarrilla



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

OTOITZA MUNGIA'N

AZKATU TA ARGITU

Espetxeko kateiak
lotsagarriak dira
gizonarentzako,
gizona ez da jaio
zoritxarpe orretan
bizi izateko.

Uts eiterik ba dago,
damutu giza-seme
egiaren aurrez,
eta askatasuna
emon bizitzeari
zorionasunez.

Askatasun bidetik
betor argi ezia
giza bizitzara,
argiak zuzendu beiz
gizonaren lan danak
zorion bidera.

JAUNA, EMON INDARRA

Txerren, gogotsu, dabil
berē zereginetan
gizarte guztian,
indar aundiak daukaz,
asmoak aundiago
bere almenian.

Lurrez ta itxasoz
ez da, iñoz, gelditzen
bere arazoan,
gizadia austu nai dau
bere gogoetara
lurralde osoan.

Zeru-lurren Jaubea,
errukiz, adi dago
gizadi guztira,
nere seme maiteok,
gora, jaso biotzak
Aitaren etxera.

SIÑISMENDUAK

Gora siñismendunak
argi eder orregaz
bizi nai dabenak,
munduko buruketan
laguntasuna dauka
kristau siñisdunak.

Siñismen zerutarra,
onenik onenean,
argitasuna da,
siñisdun zoriontsu,
bide onetik zoaz
goiko Aberriara.

Argia ta bakea
opa dautsez gizoni
siñismen bideak,
argiak zabaltzen dauz
on egiñez batean
zeruko ateak.

JAUNA DOGU SALBAMEN

Eskar utsez sorturik
lur gaiñean bizi da
erritar gizona,
mendi ta itxasoak
emon dautsaz Jainkoak,
au da maitasuna.

Gizona bere baitan
arroki dabilkigu
gizakerietan,
txerren, bat ta bestetik
deika eta zirika
arrokerietan.

Baiña Aita begira
bere seme-alabei
maitasun guztiaz,
nere maite kutunak
zuekin nago, beti,
laguntzeko pozaz.

MUNGIA

Erriz inguratuta
aurkitzen da Mungia
beren ederrean,
mendi bikaiñak daukaz,
ederrez apaindurik
inguru danean.

Jata mendi altsua,
lirain, agertuten da
itxaso aldetik,
aurrez aur, agertzen da
Berriaga liraiña
orlegiz ondurik.

Soillube nagusia,
guztien burua da
sendotasunian,
zabalez ta sendoz
danen jaun ta jabe da
edertasunian.

Mendi-goi orlegiak,
gora goraka, dagoz
zeru-goi aurrian,
guztiak dira eder
Mungirantza begira
eguzki argian

Mendi eder erdian
erri bikain bat dago
Mungia izenez,
gizontasunez jator,
jakituriz argia
zoriontasunez,

Mentxaka ta Zameza,
eleiz gizon argiak
irakas bidean,
Euskalerrri ta Roma
jakintzaz argiturik
bizitz ederrian.

ERBITI'TAR XOLE ANDEREARI IRUÑA'RA

Bilbao'tik, 2007n. urteko azaroaren 5n. egunean. Adiskide ta landike, agur:

Entzun dot ondo irabazia dozun omenaldi bat egiten dautzuela Iruña'n. Asko poztuten naz eta EUSKERA-ZAINTZA'ren izenean eta lankide guztiakaz alkartzen naz omenaldi orretara.

Lan aundiak eta asko egin dozuz euskerearen alde, bai Naparroa'ko agintarien artean eta bai idazkiz euskerea zabaltzen eta sendotzen. Zoriona ba eta esker ona zuretzat.

Ba-daukagu itxaropena aurrerantzean be bide orretatik jarraituko dozula eta ZER euskerazaleen aldizkarian eta EUSKERAZAINZA, euskerearen erri akademiarenean lanak ugari eta onak argitaratuko dozuzala. Aurretiaz, eskerrik asko.

Gure Akademia'ren eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, agur bero bat eta besarkada bat.

España



15738778-Q

NOMBRE
MARIA SOLEDAD
PRIMER APELLIDO
ERVITI
SEGUNDO APELLIDO
ARBILLA

[Handwritten signature]

EXPED. 02-02-2006 VAL. 02-02-2016
IDESP

Olazar'tar Martin.
Lendakariak

OMENALDIA XOLE ERVITI'RI BERTSOAK

1

Gerla ondoko aurtxoan zinen
Basaburuko azia
Iarregiko euskal giroan
azia eta ezia
Ikasketekin aurrera-eginez
Erdal munduan naasia
Eta gerora azaldu duzu
Zure barneko grazia.

2

Xole esanda ezaguna da
Iparretikan egora
Zure izenak amaika kontu
ekartzen ditu gogora
Limosna eske zenbat eskale
Urbildu zaizu altzora
Zure apurrak jaso ondoren
Sentitzen ginen guztora.

3

Bein sekzio ta Zerbitzu-urrena
Beti pertsona berdina
izan zitekeen antzerki, bertso,
Olerki edo ipuina.
Askotan edo geienetan
Banatzeko zen pittina
Ongi dakizu erdalzaleekin
Zer den naia eta ezina.

4

Gizakiaren joan-etorrian
Sasoi desberdinak daude
Aritu zara ilusioz blai
Aritu zara suabe
erririk erri ibili zinen
Atsedean askorik gabe
Zuk utzi duzun neurrira-eltzeko
Inbidia sanoz gaude.

5

Bi alabatxo eta semea
Ai zer nolako kabia
Etxekoandre eta ama zara
Gorengo kategoria
Pozteko eta sufritzeko ere
Eman dizute zoria
Lanean zinen idazkaria
Eta etxean txoria.

6

Zerbitu duzu zure patria,
Ez dakigu zenbat urtez,
Esker oneko itzak ditugu
Biotzez ta borondatez
Gure irria eta zurea
Elkarrekin uztar bitez
Eta langile euskalzalea
Zoriontsu izan zaitez (bis)
Eta langile jubilatua
Zoriontsu izan zaitez (bis)

XOLE ERBITTIREN JUBILAZIO-BAZKARIA

Kaixo, lagunok,

Xole Erbiti gure lankidea jubilatuta berri da, eta hori dela medio, haren omenezko bazkaria antolatu dugu.

Eguna: 2007ko azaroak 9
Tokia: Maisonnave hotela
Ordua: 14:30

Bazkariaren prezioa: 48 € lagun bakoitzeko. Horretaz aparte, parte-hartzaileok 10na euro jarriko dugu, Xoleri oparia egiteko.

Omenaldian edo/eta oparian parte hartu nahi baduzu, Eduardo Aldasorori jakinarazi, urriaren 30ean baino lehenago, mezu bat ondoko helbidera bidalita:

ealdasolnavarra.es

Esker mila.

NORTASUNEZ`KO IZAERA`REN ZENTZUA (I)

JAINKOA`k, Mundu onetara bialtzen gaituanean, ez gara etorten ardurabako gauza-bat izateko, gure borondatearen zentzunean NOR izateko baiño eta jaioten garanean artzen dogu leen Nortasunezko zentzua, gizatuta jaioten garalako.

Eta guk gura izan barik, senitarlean jaioten garan ezker, sendi orren etorkizunagaz asten gara leen-soiñekoak jansten, leiñuaren izenagaz.

Jakin daigun NORI deitzen jakon, Nor-beren izena ipinten daukue eta izen orregaz, bagoaz azpiko leen galtza-zuri edo prakak-txikerrak eta soinpeko soiñekoak jazten.

Batez-be, auzotasunezko sendipean eta JAINKOA`ren beldur edo lotsean-pean bir-lotuta jaioten gara eta izatasun orrek, arkondara, prakak, artillezko pertse edo jersei eta galtzerdiakaz ia NORTASUNA`ren zentzuan ipinten gaitu.

Baiña oraindiño, aundienetariko eta garrantzi aundieneko gauzaren gabetasunean gagoz, asieratik arbasoen zentzuak, euren egarizko ulermen bidetik, gure bizitzari ez ba eutsoen jantzi IZKUNTZA`ren Zapel-on (txapel) bategaz, soin-gaiñeko berogarri-sendo ta gogorragaz eta oiñetarako mendi-oski edo bortzegi ederrakaz, bizi onetan, aurre egin bear jakon edozein gauzari egiteko. Berak emon euskun izena eta beragaitik Mundu guztian ezagutzen gaituelako.

Badaukagu-ba, gure ARIMA`k leen, JAINKOA`k garagi onen zentzuan jantzita eta gure arbasoak ainbeste mila urteko ikas-bidetik jantzi euskuen NORTASUNAGAZ, tresneri ederrak bizitzari aurre egiteko.

Or !! agertu giñan NORTASUNA`ren zentzu ederrenean ondo jantzita, gizon-emakumeak daukiezan biotz-gabekerizko ankerkeriak eta ekaitzazko denboraldiaren aurka ondo babestuta.

Milla-urte askoren Demokrazizko zentzu ederrenean etorri gara, JANGOIKO`aren eta BERE bereztasunezko LEGE`en ulermena, ardura ederrenean ondo zainduta.

Mundu osoan eta gure Europa onetan batez-be, Euskaldunen berbea beti izanda EGIA`ren ikurra, JAINKOA eta GIZARTEA`ren aurrean LOTSAS`ko ardura aundikoa izan dalako. Orregaitik EKANDU`zko ZENTZU`aren arloan bera izanda oraiñarte aundiena.

IÑOR!! EZ DA IZAN GAI ORAIÑ ARTE, DAUKAGUN EUSKAL-NORTASUNAREN BORONDATEA MAKURTZEKO, JAUNGOIKO`aren SINISMEN EDERRENEAN BIZI GIÑELAKO eta MUNDU ONETAN EZ DAGOELAKO INDARRIK SINISMEN-ORI MENPERATZEKO.

Beti !! ERRIAREN ALDERDIZKO EZBERDIN ERAK ULERMEN AUNDIAN EUKITA zaindu genduzan zalantzarik-gabe EUSKAL ELBURUAK eta EZ DAIGUN AZTU orko bidetik ibilita, beti agertu garela GARAIPENTSU.

Baiña....., zer gertatzen jaku gaur? XAUTZAILLETASUNEZKO (consumismo) denboraldi onei esker....., bereztasunaren edo bereztasunezko lege`tik urruntzen asi garanean?

Gaur nik ikusitakoagaitik esan bear dot, ez dakigula nondik-nora gabizen eta okerreko aolkuak artuta, etxea barrutik apurtzen gabizela.

Eta ez da urrun joan bear, gure etxetik asi-ta sortzen diralako gauza orreik.

Menperatzaillaren trebetasuna nondik-nora doa?

Ondo baiño obeto dakie zer egin bear dan eta orregaitik itxaroten dabiz, gure NORTASUNA xirriboratu, nastu edo illundu daiten, indarra galduta euren Espaina`ko asmakizuna indartu daiten.

Zein da orduan... euren egitamuaren saioa?

Euskerea eta E.T.A.`ren bitartetik dabiz jokatzan erriaren gizartea gogaitu daiten.

Gure artean oker edo guzurrezko ulermenak buruan sartuta Euskerearen buruz, umeari ez dautsegulako daukan garrantzia erakusten (Ama`ren izkuntza edo gure izenaren oiñarria dala) umeak NORTASUNAREN-GARRANTZIGABETASUNEAN berdintasunezko neurri orren parean, menderatzaillatasunezko izkuntza (gatzelera) artzen dabe.

Orregaitik eurok, "ORAINDIÑO EZ DALA DENBOREA" eta igasaldi edo igaro-aldi luzea izango dala esaten dabe, Euskal- NORTASUNARI oraindiño, ez dautselako indar naikorik kendu.

Non igertzen dabe eurak, edo zelango neurriak daukiez ori jakiteko? Auteskundetan zalantzarik gabe.

Orregaitik lau urte orreitan E.T.A.`gaz jolasten dabe, onek mozollo`en antzera joko ori on-artuta eta ez badebez eurak (menperatzaillak) gure dabezan emaitzak lortzen, ibiltzen ipini direzan bake-aurrealdiak apurtzen dabez eta daukiezan ezker-eskubi indarrak batuta E.T.A. azpiratzera doiazela esaten dabe.

Goazan euren itzaldietan zer esaten daben ikustera eta uste dot argi geratuko dala: Rajoi`k, E.T.A. azpiratzen doala esaten dauenean, bere menperatzaillak esan beroetan, geiago esaten dauala ikusten dalako, (bestela begitu euren esanak) EUSKALERRIA azpiratzen doiela-be esaten dauelako.

NORTASUNA

Zapatero`ren Itzaldia, Elkartasunezkoa (confederación) izan barik, bateratzekoa (federación) egiten dau, Nortasuna kontuan euki gabe, bere azpiko asmakizuna Laterritasunaren jokia dalako.

Biak gogotasun bardiñekoak diralako, beti alkartuko dira EUSKALERRIA`ren aurka, gaurko egunean Nafartarrarekin egin dauan antzera, euren eskuetan egon daiten.

Gauza oneik, ezeren lotsarik-gabe egiten dabez, aukerak betidanik daukiezelako E.T.A.`rekin jokia barritzut ezkeror, iñork ez daudelako sinisten gauza onekaz ain guzurtiak izango direnik eta osterabe beste lau-urteko joko bardiña EUSKALERRIAREN urduritasuna lortzeko urrengo auteskunderarte.

Guk obeto jakin bear gendun politikako jokoak jolasten, arrazoa gudan daualako. Konturatzen zarete....., azelango urduritasuna sartzen jaken ABERTZALEAK irabazten dogunean?

Eurak politikako jokoan jolasten dabizenean eta berri-emailetan daukiezan taldeakaz abestalde aundi bat eginda, era azkotako eta guzur-utsezko berbakin "EUSKALERRIAK EZ DAUKALA ZENTZURIK ESATEN DABE". Eta tanborrada uts orreik billurtzen gaitue....., Euskal talde guztien artean ontzi-gelan daukaguzan trazu-zar guztiak bata besteari botaten asteko?

Eurenguzurjoko-oriegitekonungo JAUNGOIKOA`gaz dabilz..., berezkotasunezko-erri bizi dan baten aurrean enda-iltzaille (genocidas) amurratu agertzeko?

Mundu au geurea da? Ala guk erabiltzeko BERA`k daukazan legeakaz?

Katoliko-abertzaleak (Kristauak ez direnak) gaur, badaukie-bai!! alango arrazoiaren aurrean zer gogoratu, 1936`an sortuzana gaur osterabe ez daiten sortu, orduan Mundu guztian zabaldu egin ebalako, euren "COMO !! HAN COMBATIDO CON LA CRUZADA NACIONAL KATOLICISTA A LAS ORDAS ROJAS Y COMUNISTAS VASCAS". Emen eurak baiño sinismen askoz aundiagoko KATOLIKOAK egonda.

Zelan adierazi bestela..... Euren katolikotasunezko indar-faziztak Euskalerrriaren benetako katolikoen aurka borrokan egin ebala?

A-ta guzti, etxakie jausten arpegia lotseak eraginda, EZ!!

Guzurti batek euki leuke lotsarik?: "Guzurrean dabizenean ez behintzat"

Orregaz oartu bear gara eta gure benetako jokia egin, "EUSKALERRIAK BERE BENETAKO SINISMENEAN ALAN ESKATZEN DAUALAKO".

ATUTXA`tar PAUL

ZONOTZAN 2.007`an BAGILLA`ren 12`an

ZUK DAUKAZU

Zer daukazu aitona
seme danei opaka
esku zuri ortan,
liburu zuri onek
bizia opa nai dau
orri zurietan.

Egiz josita dago
beren egal danetan
ona egin nairik,
mundua argitu nai dau
onbide zuzenean
zuzentzaz goiturik.

Nire barri ona da
poztasun ta bakea
bizitza aurrean,
gizonaren bizia
egiz jantzi bear da
lurraren gaiñean.

JESUS IZENERA

Almen aundiko da
Jesusen izen ona
mundu zabalean,
lur ertzetik ertzera
zabaldu da izena
beren omenean.

Odolez erosi dau
gizadi on guztia
Kurutzan, josirik,
maitasun guztiagaz
zabaldu dauz ateak
Kurutzean illik.

Jauna begira dago
gizadi maiteari
goi zorionetik,
danak erosi ditu,
guztien Errege da
Kurutzan gaiñetik.

PAULIN

EUSKAL ABIZENAK

(ITZALDIA: 2007-11-20)

EUSKERA ZALEAK ALKARTEA EUSKAL ASTEA

Arratsaldeon, entzuleok:

ABIZENAK MAITE DOGUZ

Guk euskaldunok maitasun bereizia dautsegu gure abizenai, beste leku batzutakoak baiño geiago.

Zergaitik ete da ori?

Guri abizenak geure jatorria agertzen dauskuelako, beti argi-argi ez ba'da be. Eta berezko gauzea da gure aurretikoai dautsegun maitasuna

ASKO DIRA

Ameriketan 200.000 abizen euskaldun dagozela diñoe, emen gure artean beste ainbeste ba'doguz, 400 000 dira abizen euskaldunak.

Erri txikia izan arren, abizen asko eta ederrak, bereiziak daukaguz.

NOIZTIK?

1.300 urte-inguruan agertzen dira gure abizenak ugari idatzita, baiña lenago sortuak dira. 600n. urte-inguruan, antza dagoanez.

NONDIK ARTUAK?

Beste leku batzutako abizenak nondik artuak eta zergaitik artuak diran ez dago argi, esaterako "Cantera" edo "Rojo" edo "Rojas"...

Gure artean argi-argi agiri da nondik artuak diran: Etxe baten izenetik artuak dira. Iñoz erri-izenak be izaten dira, esaterako eleizpean eta udal-etxean aurkitu dan umeari ezarten jakona.

Nik Gamiz neure erriari buruz liburutxu bat idatzi neban eta antxe agertzen da antxiñako gamiztar baten abizena: Albar Iñiguez de Gamiz. Onak ez eban artu etxearen izena, etxeak Ugarte eukan izena. Erriarena bai "Gamiz", baiña nondik dator "Iñiguez" ori?

Olako abizenak artzen ebezan kanpotarren antzekoak izateko. Sarritan ikusten da aita dala Mandaluniz eta semea Saez de Mandaluniz. Jokabide onak indar aundiagoa izan

eban Araba'ko lurraldean eta an gaur be abizenetan erriaren izena eta aurreko "Saez" edo "Martinez" edo olakoak agertzen dira.

ETXEAK

Erri guztietan daukaguz abizenak sortu dabezan etxeen izenak. Gamiz'en, esaterako 76 etxe-izen agertzen dira abizenak emon dabezenen artean, esaterako Abio, Agarre, Añibarro, Amunuri, Aretxederra, Arrena, Aurrekoetxea, Baztegi, Beasko, Errekalde, Kafranga, Kapiriaga, Lizardi, Elorriaga, Elorrieta, Errementeria, Etxebarria, Etxezarraga, Garaizar, Garai, Gazaga, Ipiñarri, Isasi, Landa, Larrabazterra, Larrea, Lauzirika (Laurike), Loba, Mendibil, Olazabal, Oleaga, Ormaetxe, Zoietxe, Ugarte, Uribarri, Zearreta...

Etxe orretan abizena artu dabenak, eurakaz daroe abizena, baiña etxea an geratzen da, beste abizen bateko jabea dauala.

Norberaren izenenko etxea ikusten dogunean, ez dogu uste izan bear andik urtenak garala. Ez. "Agirre" edo "Agarre" izena dauken etxeak 200 dagoz Euskalerrian. Edozeiñetatik urtena izan leiteke abizena, eta orrelan beste izen asko.

ETXEEN IZENAK

Itaun au egin geinke: Abizena etxearen izenetik dator, baiña etxearen izena zelan ipinten eben?

Etxearen izenak geienetan etxea non dagon esaten dau: Esaterako Bengoetxea, Goikoetxea, Arruabarrena, Irigoien...

Batzutan etxean egiten dan industri edo langintzatik ateraten da, esaterako "Errotazar", "Bolintxu", "Olazar", "Olabarri", "Argiñene"...

Beste batzutan etxea zelakoa dan agertzen dau izenak: "Etxeandia", "Etxatxu", "Etxe Zuri"...

Abizenak sortu dabezan etxeak eta euren izenak galdu ez daitezkan alegiña egin bear dogu eta etxea barria egiten ba'da, zarraren izena ipiñi.

ARAZO LARRI BAT

Etxearen izena ez da aldatzen, baiña abizena errez aldatzen da eta orduan zer egin? Abizena aldatu? Orrek kalteak ekarri leikez etorpidetan. Etxeari izen barria ipiñi? Orrelan lengo biztanleak dira galzaille.

EUSKAL ASTEA

Esate baterako, nire abizenen artean "Uribarri" egoan orixe zalako etxearen izena. Baiña nire aitita zarrak iru alaba eukazan eta semerik ez. Orduan alabai esan eutsen: Etxea emongo dautsat "Uribarri" abizena daukan suiña dakarren alabeari. Asi ziran oneik senargaiaren billa, baiña ezin aurkitu. "Uribe" abizena eukana aurkitu eban batek eta aitita zarrak onartu eban. Gure baserrian etxearen izena, "Uribarri", galdu egin zan eta ordeztu "Uribe" sartu.

AZKUE TA ARANA AURREZ AURRE

Euskaldunok erderaz ekiten dogunean abizenari "de" ipinten dautsagu aurretik, antxiñako oitureari jarraituz: Juan de Garai. Orregaz esan nai da Juan ori Garai izena daroan etxekoa dala, baiña ezkontzak eta aldakuntzak izan diralako, ori eziña biurtu da, esan dogun lez.

Arazoa konpontzeko bide bat eskiñi eban Azkue'k: "de" ori "ko" biurtu: "Azkue"ko. Orrek etxearen jatorria ondo agertzen dau. Sabino Arana'k, ostera, "tar" ipinteko bidea eskiñi eban: "Azkue"tar izango litzake.

Bien alde dagoz zioak. Azkue'k berak diño "tar" ipintea leiñargia esan nai dauala eta Alemania'ko "von"en antza daukala. Orregaitik itandu eutsoen berari leiñargia ete zan, eta bera zur erantzun eutsen: "Leiñ-illun"tzat be ez eukala bere burua.

Dana dala, azkenean "ko" galdu egin da eta "tar" aurrera doa. Biak dira erabilgarriak.

AITA'SANTUAGAZ ALKAR-IZKETAN

Gure Gotzain laguntzaille dan ETXENAGUŠIA TAR Karmelo, II Jon Paul Aita Santua ikertzeroa joan zanean, Aita Santuak itaun au egin eutson: Euskaldunok abizenen daroazuen "etxe" ori zer da? Lengoan etorri jatan Ambrosio Etxebarria gotzaiña eta or daukagu Etxegarai kardinala. Gure Karmelo'k aukerea izan eban Aita Santuari "etxe"ren esanaia azaltzeko.

ANTXIÑAKO ABIZENAK

Antxiñako abizenak aurkitu nai ba'dozuz, iru iturritara jo egizu batez be: Balladolid'eko txanzilleriara, ara joaten ziralako XIII gizaldi-inguruan euskaldunak euren leiñargitasuna ziurtatzeko, edo naiago ba'dozu Eleiz-ordena Nagusietara, esterako "Orden del Santo Sepulcro" edo "Caballeros de la Orden de Santiago", or zaldun biurtzen diran euskaldunen abizenak aurkitzen diralako, edo irugarren iturria Kristobal Kolon'egaz Ameriketara joan ziran euskaldunena.

Azaldu daigun apur bat irugarren au, Ameriketara joan ziranen abizenen arazoa.

Santa Maria itxas-ontzian zazpi euskaldun joiazan: Chanchu de Lekeitio, Domingo Antxia de Ispaster, Martin de Natxitua, Lope Areisti de Erandio, Diego de Arana eta Domingo de Lekeitio.

Oneik 1492'ko urrillaren 6n. egunean matxinada sortu eben Kolon'en aurka, ituna 750 legua egiteko zalako eta egiñak 800 baiño geiago ziran.. Kolon'eri itxasora botateko zemaia egin eutsoen, baiña beste ontzietatik lagundu eutsoen. Bakea egin eben, baiña urrillaren 9'an 1.000 legua eroiezan eta euskaldunen matxinadara sartu ziran beste guztiak. Iru eguneko epea eskatu eban Colon'ek eta bigarren egunean ikusi eben lurra.

Beste ontzi bietan be ba-joiazan euskaldunak, "La Niña" n esaterako giputzak: Pedro de Arraes eta Juan onen semea Juan Ruiz de la Peña eta Juan Martinez de Azoke.. "La Pinta"n Juan Kintero de Algorta eta Oier de Verastegi.

EUSKALDUNEN JOKABIDEA

Alde guztietako euskaldunak ondo alkartzen ziran Ameriketara eta guztiak artzen eben jokabide bardina: Lurraldeen askatasuna lortzeko bidea.

Abizenak erderaz datoz baiña beti "de" aurretik dabela: Domingo de Antxia, Martin de Natxitua, Lope de Areisti, Diego de Arana.

...

Alegindu gaitezkan gure abizenen eta etxeen izenak dauken esan-naia ulertzen. Gaiñera or itz asko aurkituko doguz gaur galduta dagozenak.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKERAZALEAK EUSKERE'A ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEAK urteroko Batzar Nagusia egingo dau 2008n. urteko urtarillaren 17n. egunean, lenengo deia aratsaldeko 7 1/2etan eta bigarrena 8'etan, egitarau onegaz.

- Aurreko batzarraren agiria irakurri ta onartu.
 - Urteko kontuak
 - Urteko ekintzak
 - Arduradunen aldaketak
- Bilbao'n 2008n. urteko urtarillaren 1º egunean.

LENDAKARIAK

LA ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA "EUSKERAZALEAK" celebrará Asamblea general Ordinaria Anual el día 17 de enero del 2008, a las siete y media de la tarde, la primera convocatoria y a las ocho la segunda, con el siguiente Orden del día:

- Lectura y aprobación del acta del año anterior
- Cuentas del año 2007
- Actividades del mismo año
- Renovación de cargos de la Junta

Bilbao, 1 de enero del 2008

EL PRESIDENTE

1. CAROLUS AUNDIA (CARLOMAGNO)

Gaur asten dogun ekiñaldi onetan, gizartean ikutu aundia izan daben gizakiak gogoratuko doguz, eurak artu eben gizartea aldatuta itzi eben gizaki txalogarriak. Berrogei-bat izango dirala uste dogu.

...

Erromatarrak, Grezia'tik artu eben jakintza aundiagaz eta eurak sortu eben legedi zuzenagaz, gaizarte aundi bat sortu eben, baiña erromatarren aginte-erria jausi zanean (K.O. 'ko 476n. urtean), sortu-barria zan kristiñau-erriak laguntza aundia emon arren, gizartea eta jakintza beerengo maillara jausita geratu ziran.

Baiña sasoia eldu zanean, jausita egoan jakintza ori suspertzeko agintari aundi bat agertu zan, Carolus Aundia edo Carlomagno.

...

Akisgran erri txiki baten jaio zan 742n. urtean, bere aita Pipino Laburra zan eta aitita Carlos Martel entzutetsua.

Aita Santuari lagundu eutson lonbardoak azpiratzeko eta ori lortu-ondoren lurralde aundi ta zabalen jabe egin zan eta bizi-bizi agertu ziran islandarrak be lotsazko bidera alboratu ebazan.

Gure ikuspegitik, islandarren aurka etorri zanean, oker aundi bat egin eban, Iruña'ko arresiak zapuztu euskaldunai. Euskaldunok ori ez geuntson parkatu eta Zaragoza'tik, islandarrakaz izandako burruka-ostean bere errialdera Añamendi-zeur biurtu zanean, mendi orreitan zain eukazan euskaldunak eta Roldan'ek eroian gudarostearen atzean, mendietatik arriak botata zapuztu eben. Antxe il eben euskaldunak Roldan bera be.

...

Karolus Aundia jakintzaz oso laburra zan. Erregetza artu ebanean, bear ba'da, bere izena idazten be ez ekian, baiña jakintza sortzeko ta zabaltzeko alegin aundia egin eban, orretarako Alkuino inglesa laguntzaille artuta. Bera be Alkuino'ren ikasle jarri zan eta asko aurreratu eban jakintza-arloan..

Alkuino'ren laguntzaz lenengo Akisgran'ek eskolea sortu eban eta aundi egin, eta Ikastetxe nagusi biurtu zan. Gotzaiñak be euren eleizearen ondoan eskolak sortu bear ebezan, orti dator oraindiño gaur be "maestreskuela" deritxon kanonikuaren izena. Parroki askotan edo beragoko eleizetan be ipiñi ziran olako eskolak eta jakintza-arloan lan ikaragarria egin zan Calorus Aundiaren bultzadari eskerrak.

...

800n. urtean eldu zan Karolus Aundiarentzat egunik aundiena:

Aita Santuak Erroma'ko Agintari Nagusi edo "enperadorea"ri dagokion koroia ipiñi eban bere buruaren gaiñean. Gure Karolus Aundia eleizako gauzetara larregi sartzen asi zan.

Eta zer Karolus Aundia il zanean?

Bere aginterria zatitu egin zan eta ortik sortu ziran gaurko laterriak: Frantzia, Alemania, Beterriak edo "Países Bajos" eta abar.

...

Bere ostean izan dira agintaritzat ori eskuratu gura izan dabenak, baiña gogorkeriaren bidez, esaterako Napoleon edo Hitler. Oneik Karolus Aundiaren antzekoak izan nai eben, baiña ez eben lortu. "Carlomagno" k antz aundiagoa dauko bere aurretiko agintariakaz, esaterako Teodosio, bere ostekoakaz baiño.

OLAZAR'tar Martin'ek.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera errotan lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ORFEO TA EURIDIZE (ERROMA)

Orfeo, Apolo eta Kaliope'ren semea, izen aundiko soñularia zan.

Kitarea joten Apolo'k berak irakatsi eutson eta ain trebea agertu zan ze, piztirik basatienak be baretu egiten ziran, Orfeo'k kitara'ri ateratzen eutson doiñu zoragarriagaz eta arriak eurak be bigundu.

Orfeo onek Euridize eritxon neska eder bat ezagutu eban eta zoratu arteraiño maitemindu zan beragaz. Bere asmoa agertu eutson Euridize'ri eta ezkondu egin ziran biak.

Zoriontsu bizi izan ziran urte batzutan Orfeo ta Euridize senar-emazteak, baiña egun baten ibillaldi bat egitera joan ziran basora eta antxe etorri jaken zori txarra. Bedar-artean egoan zuge bat zapaldu eban Euridize'k, zugeak aginka egin eutson orkatillean eta pozoiak bereala il eban Euridize, senarraren besoetan egoala.

Gutziz naigabetuta geratu zan Orfeo eta or ibilli zan ludian alde batetik bestera, baiña alperrik, ezerk ez eutson aitzu-erazten bere maitearen eriotzea.

Lurpeko erreñura joatea erabagi eban Orfeo'k bere maitearen billa.

Ez eban beingoan aurkitu lurperako sarrerea, baiña baztarrak begiratu eta aztertu-ondoren, aurkitu eban sarrerea sumendi baten atxen artean. Aldapa bizi baten

goitik beera jatsi zan eta su ikaragarriak ikusi ebazan an barruan. Ikaratuta bertara joan zan an zigortuta egozan gizakiak ikustera. Bat ikusi eban sekulako arritzar bat betik gora jazo-gurean, baiña gora ateraten ebanean, arria barriro jausten jakon lengo zulora eta barriro jasoten asi bear izaten eban.... beste bat aurkitu eban gose ta egarritz estu ta larri, eta aurrean eukazan masustak ezin eskuraturik... Zenbat orrelako ikuskizun!

Eldu zan, azkenean, Pluton eta Proserpina bertako nagusien aurrera eta kitara-soñu zoragarriak atera ebazan arein aurrean. Orrelan abestu eutsen bere maitearen eriotzea eta bere biotzaren naigabea eta Pluton bera be negar-malkoak dariozala ikusi eban.

Jagi adi, abeslari bizkor ori! –esan eutson Pluton'ek. -Jainko baten antza daukok kitara jotene! Emongo duat ire emaztea, baiña kontuz ibilli adi lurpe onetatik urtekeran. Beti aurrera begiratu egizue biok eta ezergaitik be ez etorri atzera ona. Barriro bakarrik genditu ez adin geiago Euridize ez ikusteko arriskuan.

Emon eutson emaztea Orfeo'ri eta itzi eutsen lurpetik biak urteten.. Eldu ziran leiza-zuloa igaroaz, lur-azalera joian bide aldapatsu eta estu baten asierara.

Nekatuta joiazan biak baiña lur-azalera eltzeko usteak poza emoten eutsen. Bide estua zan eta aurretik joian Orfeo; atzetik Euridize. Asi ziran goiko argi-izpiak ikusten be. Gaiñera eldu ziranean Orfeo'ri otu jakon Euridize'k oztopo egin ete eban, baiña ez, jarraian etorren.

Une baten biak estali ebazan laiño lodi ta baltz batek eta laiñoa urratu zanean, Orfeo gizajoak bakarrik ikusi eban bere burua. Euridize'n garraziak entzun ebazenean konturatu zan Orfeo, zer jazo jakon bere emazteari.

Zearo naigabetu zan Orfeo barriro. Eta ezin eban ezelan be naigabe ori kendu.. kitara jota be ez. Orrelan ebillala eldu zan Orfeo lurraren bazter batera eta an aurkitu eban emakume talde bat, Bako jainkoaren inguruan.

Ardaoz mozkortuta egozan Bako'gaz emakume areik eta eurakaz jolastera eroan nai izan eben Orfeo. Orfeo'k ezetza emon eutsen eta areik arrika ekin eutsoen. Asi zan Orfeo kitara jotene, berebiziko doiñu ederrak ateraten, eta emakumeak botatako arriak bigundu egin ziran eta ez eben jotene Orfeo. Onek orrelan iges egin eutsen.

Baiña emakumeak euren jarraitu eben. Arrapatu eben Orfeo eta danak batera mozkortuta kantari ta garrazika asi ziran, Orfeo'ren kitarea estaltzeko eta gero barriro arrika asi jakozan eta Orfeo zaurituta lurrera jausi zan. Andik laster il zan.

Orduan joan zan barriro lurpeko erreñura eta an aurkitu eban Euridize maitea. Lurrean ain maitale zintzoak izanak, an alkartu ziran betiko.



OLAZAR'tar Martin'ek.

EUKI ADITZAREN JATORRIA

Irugarren pertsonako adizkiak onela dira: *daroa-ø*, sing., *dar-o-e*, plu., *darabill-ø*, sing., *darabill-e*, plur., *dau-ø* eta *dau-e/dab-e*, etab. Au da, ez dago aditzaren “egillerik” edo “sujeto agenterik” singularrean, baiña bai pluralean. ¿Beti onela izan da ala antxiña baeukan bere sujeta singularrak be? Guk usten dogu baietz eta *euki* aditzak lagunduko deusku gai au probatzen.

Lafon-ek ipiñi eban *euki* aditza **edun-en dau* dala *ki* datiboa geiturik, au da, *dau-ka-t* ‘éllo/él es tenido a él por mí’, RyS 1596 aiatuaz eta bere 425 atsotitza: *peko gaxoa deukot...* ‘mala sospecha le tengo... Geroago diño, *-ko-*ori, datiboa izatetik erroaren zatia izatera eldu zala.

Bat etorren Mitxelena Lafon-egaz eta idatzi eban *deukot* adizkiak, beste datibodunak legez, *d-a-ukot-en -a-*, *-e-*billakatu ebal *d-e-utsot-ek* legez. Orduan, *d-a-ukot* ‘yo lo tengo’ izango litzake ta *d-e-ukot* ‘yo le tengo’ le erderazko datiboagaz. Beste adibide bat be ipiñi eban: *tamal eukok txiroari...* ‘lástima ten al pobre...’ lengoari laguntzeko.

Campion-ek ipiñi eban *euki* zala *eulau* ‘esto’ gei *-ki-* ‘laguntza, bilketa’, etab. Uhlenbeck-en eritiziz *euki-ren -ki-* ez da erroaren zati bat. Oregi-k esaten eban *e(d)uki-ren -ki-* **edun-en* datibotatik etorrela, au da, *o(neri)/o(rrer)*, *a(ri)*. Saroihandy-k ontzat artzen dau Schuchardt-ek esandako *dadu-k dadu-ka* datiboduna sortu ebal asiera baten eta gero **edun-en* erroaren zati bat biurtu zala.

Aldaketa ugari gertatzen dira izkuntzetan eta ez dago ukatzerik datibodun adizki batek bere datibo marka erro billakatzea, baiña, kasu onetan, gure eritzia beste bat da oin esango doguna. Edozelan be, esan dagigun *e-uk-i* aditzaren erroa ezin leitekela *-uk/uka-* izan, *da-u-z-ka* adizkian *-z-* pluralak erdibiturik dagozelako *-u-* ta *-ka-*. Ortaz, *-u-* da benetako erroa ta *-ki-* beste zeozer.

Amen aitatzen dan RyS, 1596-425-ak onela diño: *peko gaxoa deukot, etorri joatan gatxa jatordala: ase osteko loa* ‘mala sospecha le tengo, que el mal que me suele venir me viene: el sueño después de la hartura’. Amen ez dago datiborik. *Deu-ko-t-en* ikusten dan *-ko-* datiboa balitz, jarraian bear leuke “...*etorri joatan gatxa-RI*, datiboan, eta ez “*gatxa*” nominatiboan. Asko be obeto dago: *peko gaxoa deukot, daukat* lez edo *dot* lez ‘tengo’ ta ez ‘le tengo’. Erderazko itzulera be ez dago datiboan, ‘al mal que me suele venir’, nominatiboan baizik, au da, ‘que el mal que me suele venir’.

Mitxelena-k esaten eban *deukot* datiboduna zala ta *daukat* ez, lenengoak *-a-* datibodunen *-e-* billakatu ebalako ta gaiñera amaierako (*k*)o, irugarren pertsona sujeta edo egillea danean bakarrik erabiltzen dala ta *-a-* beste sujetaokaz, au da, *deu-ko-* baiña *deu-ka-t* edo *dau-ka-t*.

Edozelan be, bizkaieran, *deukot*, eta obeto esanda, *dekot*, erruz erabiltzen da. Gaminden lanak irakurtzea

baiño ez dago: *dekodas, dekot, dekosus, deko*, etab. datibo barik ikusteko. Beste alde, bizkaitar asko dagoz *dekot* eta gaiñerakoak erabiltzen dituezenak.

Orduan, aitatuturiko adibidea onela ipiñi ezkerro: *peko gaxoa daukat, etorri joatan gatxa jatordala...*, lengoaren esangura bardiña *dauka* edo *dauko*, au da, datibo barik.

Bestalde, atsotitz onen biltzailleak ondotoxoz ezagutzen eban bizkaierako *-tsi-* datibo aurreko marka berezia: *deu-ts-a, deu-s-tak, deu-s-tat, deu-s-tazu, deu-tsa-gu, deu-tsa-zu*, etab., orduan zergaitik ez eban ipiñi: *peko gaxoa deu-tsa-t/dau-tsa-t*, edo *deu-tso-t/dau-tso-t* datibo marka ezagunagaz zalantza bape barik? Datiboa ez dalako.

Mitxelenak ipintzen daben beste atsotitzak, *tamal eukok txiroari* ‘lástima ten al pobre’, “*txiroari*” datiboa or erakusten dau argi ta garbi baiña Azkuek esan eban *eukok* laburpen bat zala: *euki egiok > euki eiok > euki ok > eukok*. *Euki* ez da aditz-jokatua ta ezin da alderatu *deukot* adizkiagaz. *Egiok* da aditz-jokatua atsotitz onetan baiña au beste aditz bat da. *Eukok*, aditz biren artean osatutako laburpenak, ez dau ezer probatzen.

Oiñarte Rudolf de Rijk jaunagaz ez gara bat etorri gai batzuetan, baiña oiñ bai, bat gatoz zorionez. Esaten eban jakintsu onek, sasoi bateko denpora zarretan, *-a* ta *-o* irugarren pertsonako adizkien sujeta markak zirala: *o-nek du-o, o-rrek du-o, a-rek du-a*, beste pertsona batzukaz gertatzen dan lez, adibidez, *gu-k do-gu, zu-k dozu*, etab. Mitxelena be aitatzen eban esanez *deukot*-eri buruz oker egoala datiboduna zala sorreran esan ebalako. Bere eritiziz, bai Mitxelenak ta baita be Lafonek euren buruetan sartuta eukezela *dauko*-ren antzeko adizkiak datibodunak zirala ta ideia orrek akatsak egitera beartu zituezala.

Lafittek idatzi eban **dadu>dauka* ‘él tiene’ eta *derabill derabilka, dakar/dakarki/dakarka, deramazki/deramazka, -ki* ta *-ka* amaierak “adorno” legez arturik, naiz eta *-ka* amaierak “sujeto agentea” dirudien. Baita be *ninderamaka-n* adizkiak *-ka-* orren esanguraren arauera: *ninderamaka-n* ‘el me llevaba’, au da, irugarren pertsonako “sujeto agentea” ta bere bete bearragaz; *-ka-* ori ‘tú’ danean, ‘tú me llevabas’ eta datibo danean ‘él me llevaba a ti’.

Argudio onek kontuan artuaz, proposatzen dogu *euki* aditzaren infinitiboa **edun-en dau-ko/dau-ka* adizkietatik atara dala, amaierako *-kolka* aditz-jokoaren sorrerako egilleak edo “sujetoagenteak” izanez. Aldi berean, *ukan-* en infinitiboa badirudi *dauka*-tik sortu zala. Orduan, *euki-k* probatzen dau beste aditzen irugarren pertsona singularrak be baebala bere “sujeto agentea”, naiz eta gero galdu.

Iker Joseba Laka Guenaga

V- ALDIA: BATU BERRI TA ERRIBIDE

ETA 30.- GAURKO GIROA TA IDAZLEAK

Gure elertiaren aroak onelan banatu doguz: 1) Idazki zarrak. 2) Iparraldeko Liburu-idazle zarrak. 3) Larramenditarrak 4) Euskerearen barrikuntza: Azkue ta Arana. Eta 5) Gaurko giroa.

Azkenengo aro onetara sartzen gara orain, baiña idazle asko eta onak daukaguzan lez, ez dogu besterik egingo euren izenak aitatu baiño. Ez aitzu "ez dagoz danak" eta dagozenak ez dira danak onak izango.

Gure giro au izendatzeko idazpuru au artu dogu; "Batu berri" eta "Erribide".

Aldi onetan, 1968n. urtean erabagi eban Euskaltzaindiak euskera batua ("h" ta guzti), ez akademi, batzar baten, ondo afaldu-oste baten eta autarki barik batzar zatatsus baten baiño.

Arrezkero gure idazleak zati baitan bananduta dagoz. Euskaltzaindiak agintarien eta erakundeen babesa eta dirua lortu dauz eta besteak txirotasunean bizi gara, baiña 1978n. urtean Batua aztertzeke Bergara'n batzarra egin zanean an izan giñan. Ez euskuen jaramonik txikienik be egin eta gure geure bidea artu eta Euskerazaintza sortu gendun.

Alde bietan daukaguz idazle asko, baiña sarritan ez da jakiten zein nongoa dan. Nik zerrenda biak agertuko dodaz eta parkatu okerrak eta utsak.

BATU BERRIKO IDAZLEAK

Imanol Berriatua, Luis Villasante, Piarres Txarriton, Martin Ugalde, Xabier Gereño, Amatiño, Txilardegi, Patxi Altuna, Alfonso Irigoien, Jose M.^a Satrustegi, Mikel Zarate, Jose M.^a Aranalde, Imanol Laspiur, Salvador Garmendia, Markos Amundarain, Joseba Intxausti, Juan M.^a Torrealdei, Rikardo Arregi, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Angel Zelaieta, Mikel Atxaga, Jabier Amuritza, Telesforo Monzon, Aniceto Zugasti, Krutwicks, Juan San Martin, Juan M.^a Lekuona, Biktorkiano Gandiaga, Gabriel Aresti, Mikel Lasa, Luis M.^a Mugika, Jose Azurmendi, Paulo Iztueta, Xabier Lete, Ramon Saizar Bitoria, Ibon Sarasola, Jon Etxaide.

ERRIBIDEKO IDAZLEAK

Julene Azpeitia, Joxemiel Barandiaran, Gabriel Manterola, Norbert Tauer, Alejandro Larrakoetxea, Hipolito Larrakoetxea, Julen Yurre, Anjel Iriarai, Justo Mokoroa, Lino Akesolo, Oskillaso, Etxaburu, Xabier Peña, Manuel Estonba, Jose Antonio Loidi, Iñaki Goikoetxea, Eujenio Agirretxe, Nikolas Alzola, Aita Intza, Anastasio Arrinda, Abeletxe, Antonio Arrue, Maria D. Agirre, Umandi, Balendin Enbeitia, Ramon Murua, Plazido Mujika, Txanton Goiria, Estanis Urruzola, Jon Beistegi, Luis Egia, Gotzon Garitaonandoa, Jon Oñatibia,

Manu Oñatibia, Dunixe Oñatibia, Bixente Latiegi, Jose Anjel Irigarai, Josu Arenaza, Felix Bilbao, Karmelo Etxenagusia, Juan Anjel Etxebarria, Anastasio Albisu, Nemesio Etxaniz, Errobustene Muxika, Manuel Lekuona, Pierre Lafitte, Iñaki Olabeaga, Txomin Jakakortajarena, Eusbio Erkiaga, Paulin Solozabal, Paulo Atutxa, Sabin Muniategi, Aurraitz, Basarri, Kerexeta, Bordari, Pedro Anasagasti, Jesus Gaztañaga, Jose Agustin Orbegozo, Anonio Bilbao, Labaien, Augustin Zubikarai, Martin Olazar, Martzel Andrinua, Iñaki Zubiri.

EUSKERAZAINTZAREN SORTZAILLEAK

Orain Euskerazaintza, Euskerearen Erri-Akademiaren sortzailleak izendatuko dodaz oore aundi lez: Agirre M.^a Dolores, Akesolo Liño, Arrinda Anes, Arzelus Amale, Azurtza Jose Joakin, Barandiaran Gaizka, Elozegi Jesus, Jakakortajarena Txomin, Kerejeta Jaime, Latiegi Bixente, Olazar Martin, Onaindia Alberto, Onaindia Santi, Oñatibia Dionisio, Oñatibia Jon, Oñatibia Manu, Orbegozo Jose Agustin, Puxana Pedro, Solozabal Paulin, Sukia Anjel, "Uxola" Estanis, Zatarain Anborsi, Zubikarai Augustin, Zubiri Iñaki.

OLAZAR'tar Martin

ARGI DA ZURE ITZA

Argi uts berbera da
Jaungoikoaren Itza
zeru ta lurtean,
zeruetatik dator
izadia argitzen
gizon oroimenean

Itz Jaungoikotiarrek
argitzen dau lur dana
egizko indarrez,
lurra gora adi dago
apaltasun guztiaz
biotz maitasunez.

Argi ta maitasuna
biak alkartu dira
euren ongi naiez,
bizitz on egin nairik
aizkidetasunian
goitar maitasunez.

PAULIN

ZIZKI-MIZKIAK

Ikaztegieta'ko Loontxo Deuna; Ikaztegieta'ko txadona. XIX'gn. gizaldiko bigarren erdian, Gipuzko'n Urantzu (Irun) Madrid'ekin alkatzen dun burnibidea tajutzeko lanean zebiltzan. Lenbiziko bultziak ibiltzen asi ziran; lurpeko bide edo tunel baten urrean zan basarri bateri ura exkax izaten asi zitzayon, kalte au lurpeko bideari egozten ziotela ain txuxen. Luis Pedro Peña Santiago euzko edestilari ta enda-iztilari zanak bildutako ele-zaar baten ara-bera: basarri artako etxeakoandreak, iturriari berriro ura ba'zerion, Ikaztegieta'ko Loontxo Deunaren txadonera zun oparirik oberena eramango zula agindu zun. Ta alako batean, danak beren naigabea negartzen zutela, ustekabea, pixkanaka-pixkanaka, iturriari berriz ura zerion. Txadonean gurtzen duten Nekalduaren (Dolorosa'ren) irudia basarritar-eme arren doaintza (donación) izan zala diote.

Aldabazar: Tolosa'ko basarria; errikoi edeski batzuek diotenez, bertan jentillak bizi izandu ziran. Alderdi ayetan garia aldatu zuten lenengoetakoak, gertuko Intxur tontorratz baliatuaz, aldiaren joanean azkuntza ori utzi ta Araba'tik ekartzen zuten.

Sanson-Arri: obelisku erako arkaitza, Tolosa'n dan Illarramendi'n, Urantzu-Madrid burnibidetik ezkerretara. Elezaarrak mintzo, Sanson'ek Uzturre mendi-gallurretik bota omen zun.

Pelai Deuna: Zestona, Leotz, Bakio, Arratzu, Oka-Iruña (Araba), ta Zarautz'en ospatzen duten jaikundea.

Aidea: oldozpide errikoyari jarraiki, aidea gogal (jeñu) edota ezezko indarrak zamatzen zuten, abek gizaki ta abereetan eragiña dutela; arren aurka lezateken bakarrak aztiak eta jaupariak (apaizak) izaki. Aspaldi gabetanik, adierazi ezin zitezken gaxotasun asko aize edo aidetik, edota aidean zear zetozkela uste izaten zan.

Altza: zugaitz oni "aliso" deritza erderaz; txaplata edo enplasteetan erabilia, reuma ta subeen ozka sendatzeko aldin du.

Etxaburu: Bizkai'ko Izurtza erriko gallurtegi (torre), arkaitz eta leitzazulo, Durango'tikan Mañari'ra dijoan bideberritik eskubitara. Edestiaren arabera, arkaitza ipar-sartaldetikan ego-sortaldera alderik-alde digaron (igarotzen dan) leitzazuloan, Etxeburu'tar Lope Odino'k

basurdea lazkonkadaz (a lanzadas) eizatu zun. Elezaarrari jarraiki orde, leitzazulo orretan beñola lamiak bizi ziran, eta gabez zarata ozenak entzun oi zituzten.

Pandangoa: batzuek aurkakoa uste ba'dezate arren, dantzaki onek eztu euzkal jatorririk, Aragoi'tarra baizik. Euskalerri'ra XIX'gn. gizaldian Naparro'tik sartu zan. Oso errikoi biurtu zala-ta, bertako dantzetan barneratu zan. Borobil aundian dantzatzen dute, punteatu igiketa azkarrez, eskubitik ezkerreara ara-oneraka, ta gabeukatzaren (ordulariaren) orratzen aurkako norabideango igigurez, eta bai alderantziz ere.

Ezkioga'ko alatza (miraria): 1931'gn.eko garagarillaren (junio) 30'ean, zazpi urteko mutil-koxkor batek Ezkioga-Itxaso'ko muñoan Neskutsa (Ama-birjiña) ikusi zutela esan zuten. Albistea barra-barra zabaldu zan eta udara guzian zear eunka debotu ta begiluze aratu (bertaratu) ziran, Neskutsa ikusi nayan, bertan igerle (videntes) batzuek zirala. Gertaera onen inguruan garatz (negocio) ikaragarria sortu zuten, eta goterkiko (diócesis) gotzayak iruzurra zalakoan-edo, arazoari eldu zion. 1933'ko agorraren (irailaren) 7'an marroa agintebidez (opizialki) gaitzetsi, ta jaupariak aratzerik gebendu zieten. Neskutsaren irudia kendu, ta igarleai txanartetik (erri-elizetik) botatzeakin zemai (amenazu) egin zieten. Urteen joanean, gertakari au aitzutzen joan da, baña ez guziz orratik, izan ere, gaurko egunean bertan lore edo liliak (bigiak), margokiak eta iduriren bat ikusi ditezke, Euzkadi naiz ataldetik ekarritakoak.

Yon Deun (Yondone) Zar (San Juan Zar): baseliza, Itxasondo'n.

ETXABURU'tar Asier



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

8. DANUBIO INGURUAK

Danubio ibaiak Europa'ren erdian lurralde luze ta zabala buztiten dau eta lurralde oneri onuragarri jako ibaia.

Danubio'ri ibai urdiña esaten jako, baiña urdintasun ori zikintasunak kendu dautso. Beti alkartu dogu Danubio urdiña eres edo musikeagaz, inguruetan ereslari onak eta asko izan diralako, eta "Danubio Urdiña" deritxon bals'a ospetsua dalako.

Ibai aundia da Danubio eta beronen gaiñean itxas-ontziak ibiltzen dira eta orrelan inguruko laterrien lokarria be ba-da.

Poloniarrek artzen dabe Danubio'ren onura. Geienez nekazariak dira eta lur-sagarra ta oloa dabez ugari.

Txekoslobakiarrek daukez auzoan eta lurralde onetan bereiztu egin bear doguz Txekoak eta eskobakiarrek. txekoak garagardoa egiten dira onak eta Pilsen da euren garagardo ospetsua. Uri aundietan pillatuta bizi dira. Eslobakiarrek be nekazariak dira, maastizain eta abere-zain onak, basozaleak. Txekoslobakia danean da

arrigarria, adibidez, eskoletan notak emoten dabezenean ez txarto ulertu, notarik onena "0" da eta txarrera "20".

Ungariatarrak ostatu-emoille onak dira, zaldun trebeak, eta abere-talde izugarriak daukez.

Antzekoa da Errumania, garia ta tabakoa saltzen zalea. Eta arrorioa be ba-dauka. Iñor ilten danean, urte-muga ospatzeko, aren etxekoak eta ildakoaren izenean, pastelzati bat emoten dautsee adiskideai. Ardaun barriaren jaia ospatzen dabe tziganoak deritxen endakoak. Oneik izan daitekez gure jitanuen endakoak.

Bulgariarrak, jatorriz asiatarrek dira eta usain gozodun larrosak lantzen dabez. Beste lurralde batzutara bialdu be bai. Yogurt zukua dabe janaririk gurena.

Onein auzo dira Yugoeslabiatarrek, Dalmazia'ko itxas-ertzera joaten zaleak.

Albaniatarrek menditar latzak dira eta lur legorrari lotuta dagoz.

Gero Danubio sortaldera sartzen da, toki barri batera.

OLAZAR'tar Martin'ek.



Dalmazia'ko lur eta soñeko

IZKUNTZA ASMATZEN

Gizakiak daukagun ezaugarriarik bikaiñenatariko bat izkuntza dogu. Ez dago guk lez berba egiten dakian piztirik!

Baiña izkuntza aztertzerakoan, ziurtasun bi azertu bear doguz: 1) Trebetasun onek bide luize bat egin bear izan daula. 2) Aurrerapen ori noiz eta zelan egin zan agertzeko, ez daukagula astarrenik, fosilik.

Ba-dagoz susmoak: Geuk bakarrik daukagun adimenak oiñarria piztien zentzumenean edo instintoan daukala eta maillaka, aldi luze baten, egin zala izkuntza.

Ikusi daigun, lenengo, gure gorputzean ze aldakuntza egin zan (buruko garunetan eta estarran) eta gero noz agertzen diran lenengo izkuntzaren ezaugarriak.

ZER BEAR DAN IZKUNTZA SORTZEKO

Hume, zentzunen filosofoari, jarraituz, buruko garunak utsik dagon idaztola dirala esan bear dogu. Ori esan eban askoz lenago Aristoteles'ek be, idaztola da eta eguneroko jazokizunak markatzen dabe, geuk baiño ez daukaguz marka orreik ulertzeko erak, besteen alegiñak, zaratak, ez dira izkuntza. Izkuntza etorpidez dator aurretikoengandik eta milloiak urteetan.

Lenengo lanabesak egiten eta keiñuak (jestoak) bide dirala besetai agertzea izan zan, baiña bigarren gauzea ta bearrezkoa dira abots bakar edo bokalak eta abts lagundunak edo konsonanteak.

Buruko garunekaz egiten da berba, ez estarriagaz edo larinjeagaz.

PIZTIEN IZKUNTZARIK?

Arlo onetan jakitun diranak asko azertu dabe arazo au. Izkuntza gizakiena baiño ez da ala beste piztu batzuk be ba-darabille?

Eztabaida aundia dago or: Irakatsi leioe tanpanzeai berbetan gor-mutuen izkuntzaz? Ez. Alegiñak egin arren, guk lez ezin dabe agozkatu abere oneik, ezin izan da iñoz be lortu.

Egia esan, euren arteko artu-emonak sarritan gureen antzekoak dira.

Esaterako tximioi orlegien "alarma"-deia, sinboloa da. Etiopia'ko tximiñoiak (berdeak) lau eratako alarma-deia darabille: arrapariena, leioiena, txori arrapariena, zugeena eta primateena. Eta entzuten dabenak ba-dakie zeri eta zelan iges egin.

Baiña ori oraindiño izkuntzatik urrin dago. Izkuntza ez da komunikatzea beste barik. Au pizti askok dauko eta landara batzuk be bai.

IZKUNTZAK KATE BIKOITXA DAUKO

Guk izkuntza esango dautsagu kate bikoitxa daukon komunikapenari bakarrik.

Ori zer dan?

Otsak eta adierazpenak beti alkarregaz joan bear dabe. Otsa ez da besterik bokalak, konsonanteak eta itza baiño. Ori da lenengo katea. Baiña bigarren katea gaiarena da, berbak alkartu eta esaldia sortzen da eta esaldiak be alkartu egiten dira. Ori da bigarren katea. Kate onek beronen arauak daukoz: Adijabea edo sujeto bat, eta egozkozuna edo "predicado" osoa.

Chonsky izkuntzalariak landu eban ederto arlo au:

Lenengo kateak gorputz-zati egokitu bat bear dau, larinje-gaiña, agoa, zuurra, ezpanak... eta bide orreik gizakienak dira bakar-bakarrik, beste iñok ez daukoz, primateak be ez. Erakunde orregaz barrutik datorren aizea bideratu egiten dogu zarata egokia egin dagian. Or dagoz zurra, agoa, este gorria, biriak, ago-gaiña, agiñak, ezpanak, askotariko zaratak aterateko.

Egin leikezan abots guztiak ez dira bearrezkoak izkuntza guztietan. Esaterako gaztelerea bokaletan oso txiroa da, bost bokal argi baiño ez daukoz, beste izkuntza batzuk bokal luzeak eta laburrak, zabalak eta itxiak eta abar daukez. eta bost bokal orreik gaztelereak euskeratik artu dauz, Burgos'ko iparraldean, euskerea egiten zan lekuan sortu zalako gaztelerea. ori argi diño Menendez Pidal'ek bere "Historia del Español" liburuan.

ESTARRI-GOI EDO SUPRALARINJE

Noz al izan eben gizakiak bokalak eta konsonanteak bereiztu?

Txinpanzeak ezin dabe egin ori, orduan geroago lortu da, baiña ez da gauza erreza noiz lortu eben jakitea. Arlo orretan fosilik edo astarnarik ez dagoalako eta idazkiak gitxiago! Eta izkuntza idatzia ia gaurko gauzea dogu.

Liberman izan zan arazo au ondo azertu ebana eta ona emen lortu eban ondorena:

Umeak amaren esnea edan eta arnasa artu batera egiten dau, goian dauko larinjea. Baiña urte bitik aurrera umearen larinjea beeratu egiten da eta ortik aurrera asten da berba egiten. "Homo erectus" asi zan larinjea beeratzen, baiña berba egiten oso berandu ikasi gendun garko gizakiok. Eta apur bat neandertalak be bai. Oneik abots batzuk atera leikiez baiña ez guztiak beste jakitun batek diñoan lez, larinjea beeratze ori orain 40.000 urte dirala egin zan, orduan ikasi gendun berbetan, baiña lenengo gasea orain 200.000 urte dirala asia da.

Musteriensean aurkitu da "hioides" deritxon azur bat, larinjea tokiz aldatzeko dana eta neandertalarena zan, baiña ez eban bide orretatik aurrera egin, berba estariagaz egiten ez dalako, buruagaz egiten da. Noiz aldatu zan gure burua?

BURUKO GARUNEN ALDAKETA

Bizkardun guztien buruko garunak alkarren antzeko bideak artu dabez aurrerapenean. Bizkarrean une bakarra bost zati egiten da burura eltzen danean: una, atzeko garunak, erdiko garunak eta emen "hipotalamo" eta "telenzefalo"

Narraztiak garunen azala dauke ondo sendotuta eta or iru lekutan euren neuronak.

Primateak apur bat aldatzen dabe bizkardunen bidea: usain-lekuak daukez aundiak, geroago ikus-lekuak... eta gizakien garunen barruan asko aurreratu dira alboak eta aurrea eta ortxe dagoz gaur berbak eta onein adierazpenak.

"Homo habilis"en buru-barrua (Olduvai'n, esaterako edo Kooba Fora'n) garunak aldatu egin dabez asieran, baiña geroago datoz benetako aldakuntzak.

Zein ete zan "homo habilis"en izkuntza? Ez gaurkoa lakoa, baiña aldaketa apurka egiten doa, ez jauzi edo saltu aundietan. Fonemak sortzen "homo habilis"ek emon eban urrats aundi bat eta gero astiroago beste "homo" guztiak, batez be "erectus"ek. Orretarako garunak eta buru-azurra be aldatzen joan ziran, berba egiteko bear dan neurria eldu-artean.

ZELAN SORTU ZAN IZKUNTZA?

Azalpen-eredu asko eta gogo onagaz egiñak dagoz. Beste itaun bat lenengo: Zertarako erabilten da izkuntza?

- Alkarrari barriak emoteko.
- Barruko beroaldiak agertzeko.
- Gizartea obeto batzeko.

Eta oneitan zein da garrantzirik geien daukana?

lanabesak egiteak euki eban orretarako indar aundia. Eta orrek eskatzen eban barriak alkarrari emotea. Eskuak gauza bitarako erabili bear ziran lanabesak egiteko eta ortik joan ziran izkuntzarako gertazen.

Beste zio bat: Eizarako bear dana lortzea (au "homo erectus"ek) janariak bear ziralako.

Beste batzuk amaren eta umearen arteko artu-emonak ipinten dabez izkuntzarako bide lez.

Eta buruko garunetan gizakiak, alboak artu eban orretarako.

GORPUTZAREN ETA BURUKO GARUNEN NEURRIA

Nondik jakin izkuntza noz agertu zan? Lanabesak asmau ziranean?

Garunen neurria be kontuan artu bear da, edo buru-azurrarena eta bear diran zati barriak sortu edo aldatzen joan gizaldietan.

Burua aundi egiten danean garunak be aunditzen joan ziran, baiña sarritan gorputz osoa be aundiago egiten zan.

Adibide batzuk: Garunetan Afrikanus'en 441 zm³ eukazan, "Habilis"ek 640 zm³, "Erectus"ek 931 zm³.

Garunak egitea edo aunditzea gauza karua da gizakien bidean eta egin ba'da benetan bear izan dalako izan da. Orregaitik tximiñoien artean este luzedunak, garunak txikiak daukez eta este laburdunak garunak aundiak. Izadiaren ekonomi-arrazoak dira.

IZKUNTZA GARUNEN ALBOAN

Ez da garun aundiak eukitea balio bakarra, esaterako alboetan ipintea be balioduna da. Guk izkuntzaren tokia alboetan daukagu, eskoian geienetan. Baiña ezkertiak be ba-dagoz. Zergaitik gara eskoitiak %90?, Milloi bi urte dirala, eskoia erabilten eben beti trebe-lanetarako.

Izkuntza alboan ezarte au gizakiak egin dogu eta ez aldi beratan izan arren beste simioak. Onein artean ez dago ezkertirik.

GAURKO GIZAKIAK ADIMEN BI?

Sinbolo balioa nondik etorri zan? Noz ikasi genduan gauza bat ederra dala esaten? Bifazak lanerako balio dabè, baiña ederatsuna be ba-dauke.

Edertiaren ikuspegia orain 40.000 urte lortu da. Sinboloak eta izkuntza batera etorri ziran? Ezaupidea be ortxe.

Gaurko-antzeko gizakiak Afrika'n agertu zirala 100.000 urte dira eta edertia agertu zala (Altamira) 30.000 urte baiño ez. Or bitartean aurrerapen aundia egin eban gizakiak, baiña ez zan sortu gizaki-mota barria, burua aldatu baiño.

Lenengo gorputzak margotu ebezan (tatuaje) eta gero etxeak (kobak).

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

EUSKAL LURRA

GURE LURRA SORTALDEAN ETA IPARRALDEAN

1.1.— Sortaldean

Soria deritxon lurraldetik asiko gara.

Soria'n euskera berba egin zala jakiteko bertako todi-izenak doguz lekuko. Bertan, Numantzia-ondoan daukagu, esterako Garrai izena daroan erri bat. Izen ori, zalantza barik, euskalduna da eta ango biztanleak euskaldunak izan zirala esan gura dausku.

Baiña beste toki-izen asko dagoz Soria'n. Eta Uriaren izena bera, Soria, ez ete da euskalduna? Baiez dirudi. Pikeras mendiaren barrenean bizi ziran euskaldunak, andik mendiaren gainetik etorten zirala txoriak ikusten eben. Ortik sortua ei da Soria izena.

Errioxa osoan, Logroño bera be barru dala, euskera egin zala gauza ziurra da. Toki batzutan euskaldunak sartu egin ziran eta geroago atzera egin eben, Erramelluri inguruan esaterako, baiña antxe be toki-izenak asko euskaldunak dira.

Merino'k idatzi eban liburu bat Errioxa'ko toki-izenak zeintzuk diran eta zenbat diran euskaldunak agertzeko.

Edestian ikusten dogu Kalagurri edo Kalaorra uri euskalduna izan zala eta izena bera be, Kala alde batera itzita, "urri" edo "urri" argi dago euskalduna dala. Kala, osterata toki askotan agertzen da eta izan leiteke arabiarrena. Gogoratu Kalazeite, kalatayud eta olakoak.

Errioxa'n beroiak bizi izan ziran. Oneik erdi kelta erdi euskaldun ei ziran.

Baiña inguru aretan euskeraz berba egiten zala agertzeko lekuko lez, Donemiliane'ko "glosa" edo esaldiak doguz. Geienak gazteleraz dagoz baiña bi dagoz euskeraz. (900n. urte-ingurukoak).

Kukulla'ko Donemiliane lekaide etxean bizi ziran lekaide edo monjeak, batzuk beintzat euskaldunak ziran. Orregaitik, otoitz-liburuak latíñez eukezan lez, lerro artean edo alboan latíñezko berbak zer esan nai daben agertzen daben idazkiak dagoz, orreik dira "glosa" k. Baiña ez bakarrik euskaldunak, gazteleradunak be ez eben ulertzen latíña. Orregaitik dagoz "glosa" asko gazteleraz.

Euskeraz esaldi bi baiño ez dagoz: "izioki" eta "ayutu ez dugu". Ez dira esaldiak ulertzeko errezak, baiña argi dago euskaldunak, euskerea, dirala, gaiñera ez Bizkai'ko euskerea "ki" azken ori giputza edo naparra dalako, ez Bizkai'koa; eta "dugu" ez giputza be, "degu" litzake giputza. Dugu naparra da. Orduan Naparroa'ko euskerea egiten zan Donemiliane-inguruan.

Baiña zer esan nai dabe esaldiak?

"Izioki" "encendidamente" gazteleratu leike eta ez dago argi latíñezko zein itzeri dagokion.

"Ajutu ez dugu" latíñezko "ne precipitemur" eri dagokio eta erderaz "no seamos arrojados" litzake. Pasiba orren arrazoa korapillotsua da, Errezago itzulido geunke "no hemos ayudado".

Orrez gaiñera gure Latxaga'k azterketa sakona ta zeatza egin dau Donemiliane-inguruko toki-izenai buruz eta asko aurkitu dauz oso euskaldunak diranak.

Ondo dakigu Bertzeo'ko Gontzalo'k Donemiliane'n egin ebazala bere bertso ederrak, "Mester de Clarecia" ren barruan.

Bertzeo' ren bertsoetan berba euskaldunak agertzen dira, esaterako beldur (au be naparreratik artua) eta bere etxean be, diñuenez, euskeraz berba egiten eben. Bermeo'ko lebatza be aitatzen dau.

Errioxa alde batera itzita, goazen Salduba edo Zaragoza'ra.

Zaragoza'n bertan ez zan euskeraz berba egiten baiña bai andik ogeta amar bat km'ra.

Zaragoza'ko gotzaiña zan Braulio'k Bizintxo edo Bizente Deuna eukan bere ordeaz berba egiteko Oska'n berak berbarik ezin egin ebalako, "propter impedimentum linguae". Batzuk berbaltuduna edo tartamutua zala Braulio esan dabe, baiña ori antzik be ez daukan gauzea da, orduan Gotzain batek berbarik ezin egin izatea. Ziurragoa da beste argibide au: Braulio'k ez ekia euskerarik eta oska'n berba egiteko ori zan "impedimentum". Bizintxo diakonoa, osterata euskalduna zan.

Jaka ta Oska-aldean ibilli geranok, arrituta ikusi dogu zenbat toki-izen euskaldun dagozan lurralde aretan.

Eta pizka bat arago joanda, "Valle de Aran" daukagu: "Valle" da erderaz eta "aran" euskeraz, orduan esaldi ori "Valle del Valle" edo "Araneko Aran" dogu. Olako esaldi asko dagoz, esaterako "Puente de Alcantara", "puente del puente" da eta "Desierto de Sahara" be, "desierto del desierto". Baiña esan gura doguna da, Aran'en euskera berba egiten zala.

Len be esan dogun lez, Lurrarte itxasora arte egiten zan berba euskeraz. Eluza da Auñamendi barrenean dagoan erri bat eta ortxe sortu zan gure lenengo gotzaindegia eta geroago Goi-Gotzaindegia eta ontxe dago lurpean eleiza oso zar bat.

Bordele'n euskera egiten zala jakiteko beste jakingarri batzuk daukaguz: Ausonio eta Nola'ko Paulino' ren artean izan ziran artu emonak eta gutunak.

Bordele-ondoan eukan bere bizilekua Nola'ko Paulino eta Ausonio bere lagunak karta baten auxa diñotso: Erromatarren arteko giro ona eta oitura onak alde batera itzita, lapurrak eta gaiztoak bizi diran tokira joan zara, Bordelera.

Paulino' ren erantzuna au izan zan: Emen gugaz dagozan euskaldunak lapurrak eta gaizton ba'lira be, ez dago txarto euren artean bizi izatea bihurtu dagiguzan. Luzea da gutuna.

Paulino, auñamendi guztia igarota Bartzelona'ra joan zan eta an ezkondu egin zan. Gero bere emazteagaz Bordelera bihurtu zan eta joan-etorriak bakez egin ebazan, euskaldunen artean ezelako arriskurik gabe. Ez ziran ain txarrak Auñamendi guztian bizi ziran euskaldunak.

Or argi agertzen da Paulino' ren bizi-leku zan Bordele euskalduna zala.

Gero Paulino ori Italia'ko Nola'ra joan zan bizi izaten eta bertako Gotzain izatera eldu zaz. Gaur Eleizan santu bat dogu.

Gaskuña izena Baskonia bera da eta lurralde ori Bearne'gaz batera, euskalduna izan zala adierazten dausku.

Tarbes'ko Gotzaindegia Lapurdensis izena ipiñi eutsoen Erroma'tik, Lapurdigaz zer-ikusia ba-eukala adierazteko.

Lourdes'ko Ama ikusi eban Bernardette'k abizena Subirous eukan, eta abizen ori "Zubiburu"tik etorria da. Orduan Bernardette' ren aurrekoak be euskaldunak ziran.

Eta amaitzeko "Baiona" "ibaiona"tik etorria da eta ibaia dagon lekua esan gura dau.

Ba-dago beste Baiona bat Galizia'n be. Arrigarria da euskaldunak eta galiziarak izkuntzan daukagun antza. Esaterako, toki bietan esaten da "bota" "echar", eta bietan

galtzen da izenaren barruan doan "n" eta orregaitik toki bietan "arena" esateko "area" esaten da.

Gaurko ekiñaldiari azkena emoteko, eldu da zuen itaunai erantzuteko sasoia. Asi ba zuen itaunak egiten.

GURE LURRA SARTALDEAN ETA EGOALDEAN

Atzoko berbaldian aztertu gendun gure lurra, noraiño zabaltzen zan sartaldean eta iparraldean.

Gaur goazen sartaldera eta asi gaitezan Asturias'etik.

Asturias izena bera jatorriz euskalduna dala dirudi. Uria badakigu zer dan eta asko erabilten dogu gure toki-izenetan: Urizar, Uribarri, Goikouria, Bengouria... Batzuk "Uria" orrek erderazko "villa" esan gura daua diñoe, eta ori egia da, baiña "uria" toki-izenetan erderazko "cuenca" ren antzeko zerbait da, bere urak ibai batera baialtzen dauzan lurra. Orrelan Bilbao'n "Uribitarte" dago, erreka doazen uri edo "cuenca" biren artean.

Argi daukagu ba, Asturias berbearen zati bat, baiña zer da zati orrek aurrean dauka "ast-"ori? Ori ez da besterik "atxeta" laburtuta baiño. Zeanuri'n, esaterako, Asterri izeneko auzo bat bat dago eta guztiak dakie ez dala "astoen erri", "atxetako erri" baiño. Antzera Asturias'en, "atxetako uri" esan gura dau.

Eta bertan aurkitzen diran izen zarrak be ba-dauke euskerearen ikutua. "Naranko" esaterako, ez ete "aranko" eta aranean dagon tokia?

Alfontso lenengoa izan zan errege Asturias'eko erreñuan eta errege orren edestia edo kronika idatzi eban III Alfonso'k. Kronika onetan agertzen da lenengoz "Bizkaia" izena idatzita eta Bizkaia bere erreñuaren zatia dala diño. Itxi daigun arazo ori, zatia izan ala ez, eta zatia izateak zer esan gura dauan. Ba-dakigu euskaldunak eta Asturias'tarrak lagun izan zirala eta errege asturiastarrak emakume euskaldunak ezkondu zirala. Bear ba'da Balpuesta izango zan alkartzetxe orrean tokia.

Andik onantza gatzela, Palentzia deritxon lurraldea dogu. Izan ete zan iñoz Palentzia euskal lurra?

Baietz dirudi, eta antxe daukagu lekuko Amaia izena dauan mendi ederra.

Palentzia'ko lurrai Aratoi edo Aradui esaten jake. Eta "Aradui" ori izen jatorra ba'da, ez da besterik aran asko dagon lekua baiño, ortik etorria izan leiteke Tierra de Campos gaztelera'zko izena.

Or dago baita Orbigo izena daukan errekea eta izen ori artzen dau erreka bi bat egiten diran tokian. Orbigo ori antxiña, zalantza barik, "Urbiko" izan zan. Orrelan esan eustan gure Gotzain izan genduan eta Leon'n Gotzain izana zan Luis M. Larrea jaunak.

Eta, apur bat geiago gure artera etorrita, Kantabria daukagu. Kantabria'n euskerazko toki izenak eta abizenak asko dagoz, gaiñera aldi baten, erromatarren aldiaren be bai, kantabriarrak eta euskaldunak akartuta agertzen dira.

Valle de Mena daukagu or urrean eta aran onek be euskal usain aundia dauka.

Goazen orain Burgos'en iparraldera. Ementxe jaio zan gaztelerearen eta izkuntza barri au, erromantze barri au, ez da besterik euskaldunak erabilten eben latinkumea baiño.

Gaztelereak asko artu eban euskeratik. Ori argi diño Menendez Pidal izkuntzari ospetsuak bere liburuetan.

Lenengo, gaztelerearen da erromantze bakar bost bokalak eta bostak bakarrik, argi ta garbi agozkatzen dituan. Eta ori euskeratik artu dauan jokabidea da.

Gaztelera zarrak euskerearen jostaketa be artu eban, parasintaktikua, esaldi laburrak eta bardiñak. Esaterako "Mio zid salio de San Pedro de Cardena y atravesó Castilla y llegó a Valencia y ganó la batalla a los moros". Ori da euskerearen eta

gaztelera zarraren jostaketa jatorra.

Gero, ber-jaiotza-aldiaren, agertu zan joskera nastatua. Olan izango litzake: "Mio Cid habiendo salido de San Pedro de Cardena y después de atravesar toda Castilla, llegó a Valencia donde ganó la batalla a los moros".

Burgos'en iparraldean gaztelera sortu ba'zan eta euskaldunen artean gaiñera, argi dago Burgos'ko iparralde guztian euskera egiten zala. Noz? Lenengo milla urteetan. Autrogoiak ziran an bizi ziran euskaldunak eta autrogoi guztiak arin galdu eben euskerea, millagarren urtea igarota laster. Fernan Gonzalez izan zan Gaztelako lenengo kondea eta onek olerki bat idatzi eban gaztelera zarraren eta or itz asko agertzen dira euskeraz dagozenak.

Mio Zid izan zan erderazko lenengo olerkia eta Bihar onen erria euskalerritik urrean dago. Apur bat geroago idatzi ziran Berzeo'ren olerkiak, Mester de Cleracia'ren barruan.

Liburu guzti oneitan ugari agertzen dira euskerazko berbak, apur bat aldatuta: Miatxa Ordonio ez da besterik Mi aita Ordonio baiño, eta minaia agertzen danean ez da besterik "mi anaia" baiño.

Ba-dakigu, gaiñera, Fernan Gonzalez sarritan joaten zala Oikoista edo Akosta deritxon errian (Araba'n) egoan lekaidetxera eta Oikoista'ko lekaideak euskaldunak ziran.

Gogoratu daiguzan Mena'ren ondoren, Villarcayo, Medina de Campo, ta Miranda, Burgos'ko iparralde orretan. Guztiak euskaldun izandako erriak.

Baiña begirada bereizi bat zor dautsagu Valpuesta erriari. Erri orretan gotzaiña egon zan millagarren urte inguruan, gizaldi batzuk lenago asita, eta Gotzain orren ardurapean egozan Bizkaitar autrogoiak, Ibaizabal eta Nerbion ibaien ezker-aldian bizi ziran euskaldunak, gaur Enkarterri esaten dautsagun lurralde osoa. Eta beste erri asko.

Balpuesta'n, gaiñera agiritegi aundia dago eta agirien artean agertzen dira euskal izenak eta esaldia, Donemiliane'koak baiño zarragoak.

Balpuesta'ren inguruan daukagu Balderejo eta or urrean pasiotarren lekeide-etxe dan Angosto. Eta ez urrin Añana'ko Gatzaga edo Salinas. Au be erri euskalduna izana.

Beste lurralde aundi ta zabal bat daukagu inguru orretan, Bureba deritxon lurraldea, ori be euskalduna izana.

Ikusi dogu ba zelako zabalerearen izan eban euskaldunen lurrak, baiña lurralde guzti orreik galtzen joan jakuz eta askoz txikiago dan Euskalerri bat daukagu gaur: Añamendi'ren iparraldean Zuberoa, Be. Naparroa, eta Laburdi, eta iru lurralde orreitan 30.000 euskaldun inguru baiño ez. Eta Añamendi'ren egoaldean Naparroa, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia eta onein barruan, euskera dakienak 600.000 inguru.

Ameriketako inditarrak jazoten jakena jazoten jaku euskaldunai be: Alboetan sakatu egiten dausku eta euskerea mendietan bizi da, inditarrak euren "erreserbetan" bizi diran antzera.


Gaur alegiñak egiten dira euskerea urietara sartzeko eta batua be orretarako egiña dala esaten dabe batzuk. Baiña lortuko da euskerea urietara sartzeko? Ez dot uste. Ia berrogei daroaguz. Euskerazaleak Alkartean Bilbao euskalduntzea lortzeko. Batzuk ikasi dozu euskerea eta Zorionak!, baiña Bilbao ez da euskaldundu, ez eta euskalduko be. Amabostgarren gizaldian euskalduna zan.

Egia da euskerea ikastoletara, eskoletara, batxiller'era eta Ikastetxe Nagusi'ra sartu dala. Eta geroago ta geiago sartuko, baiña ez ete dau izango or toki eder bat eriotzea artzeko Latiñak izan eban lez?


Dana dala, guk alegiña egin dogu eta eghiten dogu, eta ori da balio dauana.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Saltzaile oneri ortz-errazto bat eta maratilla galdu jakoz eta ezin dauz aurkitu. Lagunduko dautsozu zuk?



Lotu eizuz zenbaki onek. Badakizu zer agertuko dan? Egin! Eta ikusiko dozu.

BBK

EUSKERAZAL

Colon de Larreategi, 14 - 2

48001 B

200 pezeta (1,

txartele

BBK txartelek oparia gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edoz
BBK txartelekin eta, hile
itzelezko opariak irabazi a
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk